



Lesakako ingurumena ezagutu eta zaindu dezagun!



Lesakako Beti Gazte Elkartea

lepa lagunak! Ze martxa? ☺

Haritz naiz, Lesakan duela 85 urte jaiotako arbola. Zaharra naizela iruditzen bazaizue ere, oraindik urte aunitz gelditzen zaizkit bizitzeko, baina horretarako, zuen laguntza beharrezkoa dut...

Seguru nago dagoeneko jakinen duzuela zeinen garrantzitsua den gure baso eta mendiak zaintzea. Gure paisaia maitatu eta babestuz, Lesakako animalia zein landareek biziraun dezaten laguntzen duzue eta horri esker, haiek ere zuen bizitza eta ingurumena aberasten dute.



Gure herriko natura zaintzeko, beharrezkoa da hau ezagutzea. Zuek nahi izanez gero, nik horretan laguntzen ahal dizuet! Lesakako naturaren inguruan aunitz dakit, animatzen ahal zarete honi buruz zerbait ikastera? Ea zer moduz moldatzen zareten!!

LANDAREEN ATALAK

- 1- Landare bat marraztu. Ondoren, eskuinean dituzun pistekin landareen atalak izendatu eta marrazkiarekin lotu.



H _ S _ _ A K

A _ A _ R A

_ N B _ _ R _

S _ S T _ A I A _

LAU ELEMENTUAK



BIKAIN ARI ZARETE!

Landareek bizitzeko lau elementu behar dituzte, badakizue zein diren?


_____, _____, _____ eta _____

Hauen bidez fotosintesia egiten dute eta honakoak sortzen dituzte:

- **Materia organikoa:** elikagaia bertze bizidunentzako.
- **Oxigenoa:** airera askatzen dute, bertze bizidunek arnastu ahal izateko beharrezkoa.



2- Landareek bizitzeko behar dituzten lau elementuekin osatu ondorengo gurutzegrama:



EDERKI!! Horrela segituz gero, laster ezagutuko duzue zein den landareen eta basoen funtzioa eta zenbatekoa hauek zaintzearen garrantzia!

Etxean, gurasoen laguntzaz, jarduera hau egiteko proposamena luzatzen dizuet:

-> Landatu loreontzi batean erraz ateratzen den landare baten hazia. Jaiotzeko behar dituen lau elementuak eman. Bertze loreontzi batean hazi berdina landatu. Honi lau elementuetatik bat kendu, zuk erabaki zein. Zer gertatu da?



ERNE! Hemen goian arbolaren zikloa ikusten ahal duzue: hazia loreontzian ereiten dugunetik zuhaixka bihurtzen den arte.

Lehendabizi, fruitutik aterako dugun hazia ereinen dugu lur osasuntsu batean. Ura eta eguzkia beharko ditu hazten joan ahal izateko. Pixkanaka, landarea handitzen eta sendotzen joanen da, zuhaixka izan arte. Loreontziko zuhaixka handitzea nahi badugu, mendian, espazio zabal batean, landatu beharko dugu. Azkeneko pausu hori ikusi nahi baduzu, zatoz datorren **otsailaren 22 eta 26ean** Beti Gazte elkarteak antolatutako

ARBOLAREN EGUNERA!

Gardelkopagoetan izanen da eta bertako haritzak, pagoak, lizarrak, intxaurrondoak eta gereziondoak landatuko ditugu. Parte hartu nahi duzu Lesakan urteetan egonen diren hainbat arbolen landatzean? Animatu!!

Hemen behean hainbat hosto ikusten ahal dituzue. Jakinen duzue zein arbolarena den bakoitza?



--	--	--



--	--	--

Gereziondoa

Intxaurrondoa

Pagoa

Lizarra

Haritza

Gaztainondoa



BIKAIN ARI ZARETE!

Hementxe dituzue arbola hauek eta beraien hostoak. Ba al dakizue zein den bakoitzaren fruitua? Ausartzen bazara, lotu fruitu bakoitza bere arbolarekin!



HARITZA



GEREZIÑDOA



INTXAURREÑDOA



GAZTAINONDOA



PAGOA



LIZARRA

EDERKI!! Horrela segituz gero, laster ezagutuko dituzue Lesakako bazter guztiak! Hurrengo orrian duzue aurtengo Arbolaren Eguneko unitate didaktikoko azken ariketa.

Seguru nago ederki egingen duzuela!

Heldu den otsailaren 22 eta 26an Gardelkopagoetan elkar ikustea espero dut, arbola gazteak landatzea izanen da denen artean egin beharko dugun lana. Eman egurra!

Eta honekin batera agurtzen zaituztet. Mila esker gure ingurumena zaintzen laguntzeagatik! Aiioooo!! ☺



IDENTIFIKAZIOA

ZUHAITZAK



ZUHAIXKAK



BELARKARAK



3- Lotu argazki bakoitza dagokion landarearen izenarekin:

GAZTAINONDOA

HURRITZA

SAN JOSE LOREA

EZPELA

OSINA

INTXAURRONDOA

BERBENA

BERTAKO HARITZA

GOROSTIA

PAGOA (*Fagus sylvatica*)

OTEA

LAHARRA